



K200912-03.1 FVA-EXF



**EUSKAL XAKE FEDERAKUNTZA.**

**LEHIAKETEN ARAUTEGI NAGUSIA.**

**AURKIBIDEA.**

<b>I. TITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.</b>	<b>3</b>
<b>II. TITULUA. FEDERAZIO LIZENTZIEZ.</b>	<b>3</b>
<b>III. TITULUA. JOKALARIEZ ETA KLUBEZ.</b>	<b>6</b>
1. Kapituluua. Jokalari federatuaz.	6
2. Kapituluua. Klub federatuaz.	6
3. Kapituluua. Bateriaezintasunez.	7
4. Kapituluua. Jokalarien eta klub en eskubideez.	7
5. Kapituluua. Jokalarien eta klub en betebeharez.	9
<b>IV. TITULUA. EUSKADIKO TXAPELKETEZ.</b>	<b>11</b>
1. Kapituluua. Euskadiko Txapelketen antolaketaz..	11
2. Kapituluua. Euskadiko Txapelketetan Espainiako Estatutik kanpoko jokalarien parte hartzeaz.	13
3. Kapituluua. Antolatzaileaz.	14
4. Kapituluua. Joko aretoaz.	15
5. Kapituluua. Euskadiko Txapelketetan parte hartzeko baldintzez..	16
6. Kapituluua. Torneoa zuzendu eta gainbegiratzeko organoez.	17
7. Kapituluua. Lehiaketa baten antolaketa teknikoaz.	18
Epaile Nagusiaz.	18
Epaile Nagusiaren Ondokoez..	19
Epaile laguntzaileez.	20
Lehiaketa Batzordeaz.	20
<b>8. Kapituluua. Klub en arteko Lehiaketez.</b>	<b>21</b>
Ohorezko Mailako Klub en arteko Taldekako Euskadiko Txapelketa.	25
Lehenengo Mailako Klub en arteko Taldekako Euskadiko Txapelketa.	28
Partida azkarretako Taldekako Euskadiko Txapelketa.	
16 urtez azpiko Taldekako Euskadiko Txapelketa.	31
Eskola adineko Taldekako Euskadiko Txapelketa (14 urtez azpikoak).	
Euskadin Taldekako beste Lehiaketez.	
<b>9. Kapituluua. Banakako Lehiaketez.</b>	<b>36</b>
Adin orotako Euskadiko Banakako Txapelketa.	38
Emakumezkoen Euskadiko Banakako Txapelketa.	39
Beteranoen Euskadiko Banakako Txapelketa.	41
Xake azkarreko Euskadiko Banakako Txapelketa.	41
Nazioarteko Sustapenerako Xake Torneoak.	
Kadete mailako Euskadiko Banakako Txapelketak (16 urtez azpikoak).	
Gazte mailako Euskadiko Banakako Txapelketak (18 urtez azpikoak).	
Eskola adineko Euskadiko Txapelketak (12 urtez eta 14 urtez azpikoak).	
Euskadin Banakako beste Lehiaketez.	
<b>V. TITULUA. EUSKAL SELEKZIOAZ.</b>	<b>42</b>
<b>10. Kapituluua. Seleksioen arteko Lehiaketez.</b>	
Seleksioen arteko Nazioarteko Torneoak.	
Autonomietako Seleksioen arteko Txapelketak.	
Lurraldeko Seleksioen arteko Torneoak.	
<b>VI. TITULUA. DOPINGAREN KONTROLAZ.</b>	<b>43</b>
BEHIN-BEHINEKO XEDAPENAK.	45
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.	45
AZKENEKO XEDAPENA.	45



## **I. TITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.**

### **1. artikulua.**

Lehiaketan Arautegi Nagusi honen xedea hauxe da: Federazioari atxikitzeko baldintzak, EXFk antolatutako, homologatutako edo eskuordetutako proben antolaketa eta kontrola, eta kirol antolaketa orokorra eta bereziki bere lehiaketak arautzea.

### **2. artikulua.**

Euskadin Federazio honen eskumeneko xake federatuko edozein modalitatearen garapenean praktikatuz, parte hartu edo esku hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztiei aplikatuko zaie Arautegi hau.

## **II. TITULUA. FEDERAZIO LIZENTZIEZ.**

### **3. artikulua.**

1. Arautegi honen ondorioetarako, federazio lizentzia da EXFk luzatutako agiria, jabea bere baitan afiliatuta dagoela egiaztatzen duena, ezarritako baliozkotasun epean.

“Jokalari” izendatzen zaio kirolari federatuari, gizoneko edo emakumezko sexukoa izan daitekeela ulertuta. Irizpide bera aplikatu behar da “epaile”, “entrenatzaile” eta “monitore” izendapenekin.

2. EXFk pertsona edo entitate bakoitzarentzat urterako federazio lizentzia banakakoa emanen du. Estamentu eta kategoria bakoitzeko kideentzat era berekoa izanen da lizentzia hau

3. Federazio lizentziak, hartzailearen arabera, modalitate hauek izanen ditu:

- a) Klubaren lizentzia
- b) Jokalariaren lizentzia
- c) Epailearen lizentzia
- d) Entrenatzaile/monitorearen lizentzia.

4. Federazio lizentziaren jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek EXFren Estatutuetan edo aplikagarri diren gainontzeko arauetan ezarritako eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

### **4. artikulua.**

Lizentzian, modalitatearen arabera, ezinbestean agertu beharko dira derrigorrezko datuak, identifikazio eta kirol interesekoak jotzen diren datuez gain..

### **5. artikulua.**

Federazio lizentzia edukitzea beharrezkoa da EXFk antolatutako edo homologatutako xake ekitaldi guztietan parte hartzeko edo esku hartzeko eta, oso bereziki, Txapelketetan, Torneoetan, Ikastaroetan, eta abarretan.

### **6. artikulua,**

Federazio lizentzien araudian administrazio kudeaketari eta haien baldintzei buruzko atalak zehaztu behar dira: Lizentzien tramitaziorako prozedurak, epeak, iraunaldia, datuak, motak, modalitateak, federazio kuota eta kirol aseguruak, ordainketa, berriztapenak, altak eta bajak, aldaketak, formularioak eta zerrendak, eta abar.



### **III. TITULUA. JOKALARIEZ ETA KLUBEZ.**

#### **1. Kapitulumua. Jokalari federatuaz.**

##### **7. artikulua.**

1. Jokalari federatuaz haxe ulertuko da: Bere izenean eman eta indarrean dagoen EXFren lizentzia duen jokalari oro. EXFk bereziki gonbidatutako jokalari bat baldin bada edo Euskadin egiten den kirol ekintza batean parte hartzen duena baldin bada, dagokion federazioan federatua egotea egiaztatu beharko du.
2. EXFk antolatutako, homologatutako edo eskuordetutako xake lehiaketetan parte hartzeko lizentzia hau beharrezkoa izanen da, aurreko puntua betez.

#### **2. Kapitulumua. Klub federatuaz.**

##### **8. artikulua.**

1. Euskadin klub federatuaz haxe ulertuko da: Bere izenean eman eta indarrean dagoen EXFren lizentzia duen klub oro.
2. EXFk antolatutako, homologatutako edo eskuordetutako xake lehiaketetan parte hartzeko lizentzia hau beharrezkoa izanen da. EXFk bereziki gonbidatutako klub bat baldin bada edo Euskadin egiten den kirol ekintza batean parte hartzen duena baldin bada, dagokion federazioan federatua egotea egiaztatu beharko du.
3. EXFren lizentzia lortzeko, klubek edo edozein entitateko edo erregistratutako elkartetako kirol sailek Lurraldeko Federazio batean afiliatuta egon behar dute.

#### **3. Kapitulumua. Bateriaezintasunez.**

##### **9. artikulua.**

Bateriaezintasunen alorrean jokalari federatua hurrengo arauen pean egonen da:

- a) Estamentu bakoitzean, EXFk eman eta indarrean dagoen lizentzia bat baino gehiago ezin izanen da eduki.
- b) Aldi berean, EXFko edo FEDAko klub batean baino gehiagotan ezin izanen da federatua egon jokalari bat. Ezta ere Autonomiako edo Lurralde Federazio batean baino gehiagotan.
- c) Inongo klubetan inskribatuta ez dagoen jokalari batentzat emandako lizentziaren kasuan, jokalari aske hau ezin izanen da Autonomiako edo Lurralde Federazio batean baino gehiagotan inskribatuta egon, epe berberako.

##### **10. artikulua.**

EXFk eman eta indarrean dagoen lizentzia bat baino gehiago ezin izanen du klub batek eduki. Epe berberako, klub bat ezin izanen da federatua egon Autonomiako edo Lurralde Federazio batean baino gehiagotan.

##### **11. artikulua.**

Taldekako Euskal Liga eratuta dagoen maila edo kategoria bakoitzean, klubek ezin izanen dute parte hartu bere ordezkapena duten talde bat baino gehiagorekin.

##### **12. artikulua.**

Aurreko puntuetan irregularitateren bat baieztatuko balitz, dagozkion kirol eta diziplina zigorrak aplikatuko lirateke.



#### **4. Kapitulumua. Jokalarien eta klubuen eskubideez.**

##### **13. artikulua.**

Euskadin federatutako Espainiako Estatuko jokalariek, ez badute galarazten dien diziplina zigorrrik, EXFren Estatuetan zehaztutakoetatik dagozkien gainontzekoez gain, hurrengo eskubideak izanen dituzte:

- a) Euskadiko eta Espainiako Txapelketetan parte hartzea, ezarritako gainontzeko kirol betebeharrak betetzen badituzte.
- b) Ezar daitezkeen sustapen edo kirol arreta bereziko zerrendetan parte hartzea.
- c) Espainiako Estatuko lurraldean egiten diren antolaketa irekiko proba ofizial guztietan parte hartzea, baldintzen, plazen eta parte hartzaileen kopuruaren inguruko inskripzio mugekin.
- d) Euskadin antolatu eta FEDAren Txapelketetarako baliagarriak diren probetan parte hartzea, Lehiaketa bakoitzaren Oinarrietan zehazten denaren arabera.
- e) Parte hartzen den nazioarteko lehiaketetan Euskadi ordezkatzea, bai banaka bai taldeka, beti lehiaketa bakoitzaren Oinarrietan ezarritakoaren arabera postua bereganatu badute, edo EXFk hautatu baditu.
- f) Parte hartzen duten EXFk edo FEDAk homologatutako probetan, hala Estatu mailakoetan nola nazioartekoetan, EXF, FEDA eta FIDEren rankingetarako euren jarduketa guztiak kontabilizatuak izatea.
- g) Probaren epaile txostenarekin batera EXF eta FEDAren jakinaren gainean jarritako emaitzak (Euskadin, Autonomikoetan, Estatukoetan edo Nazioarteko proba homologatuetan) FIDEra bidaliak izatea, bai nazioarteko rankingean kontutan izateko, bai normak eta nazioarteko titulazioak lortzeko.
- h) Atzerrian jokaturako lehiaketetan lortu eta EXF eta FEDAren jakinaren gainean jarritako emaitzak FIDEk kontabilizatuak izateko zaindua izatea, bai nazioarteko rankingean kontutan izateko, bai normak eta nazioarteko titulazioak lortzeko..
- i) Euren emaitzengatik lortu dituzten tituluak FIDEri eskatuak izatea. Era berean, rankingean ez sartzegatik edo euren jarduketa batean okerreko kalkulua egiteagatik FIDEri egin beharreko eskakizunak eginak izatea.
- j) FEDAren aldetik edozein izendapen, laguntza edo dirulaguntza lortzea.
- k) Ezarritako ordain ekonomikoa jasotzea.

##### **14. artikulua.**

Euskadin federatu eta Espainiako Estatutik kanpoko nazionalitatea duten jokalariek, ez badute galarazten dien diziplina zigorrrik, EXFren Estatuetan zehaztutakoetatik dagozkien gainontzekoez gain, eta Arautegi honetako 29. artikuluan ezarritakoez gain, 13. artikuluko f), g), h) eta i) ataletan ezarritako eskubideak izanen dituzte.

##### **15. artikulua.**

Klub federatuek, ez badute galarazten dien diziplina zigorrrik, EXFren Estatuetan zehaztutakoetatik dagozkien gainontzekoez gain, hurrengo eskubideak izanen dituzte:

- a) Indarrean dagoen lizentzia duten klubeko jokalaria federazioko probetan onartuak izatea, lehiaketa bakoitzean ezarritako arauen arabera.



- b) Kategoria bakoitzean kluba ordezkatzeko duten taldeak federazioko probetan onartuak izatea, lehiaketa bakoitzean ezarritako arauen arabera.
- c) EXFren bidez, Euskadiko edo Espainiako Txapelketak antolatzeko eskaera egitea eta, dagozkien arauen arabera, antolaketa lortzeko aukera izatea.
- d) Parte hartzen den nazioarteko lehiaketetan Euskadi ordezkatzeko, beti lehiaketa bakoitzaren Oinarrietan ezarritakoaren arabera postua bereganatu badute.
- e) EXFk, FEDAk edo FIDEk antolatu edo babestutako nazioarteko edozein lehiaketan parte hartzea, ezarritako arauen arabera.
- f) Homologatutako beste edozein lehiaketa antolatzea, beti EXFk, FIDEk eta FEDAk antolaketan, Oinarrietan eta garapenean lehiaketarako ezarritakoa betetzen bada.

## **5. Kapituluak. Jokalarien eta klubaren betebeharrak.**

### **16. artikulua.**

Jokalari federatuek, Estatutuen eta aplikagarri diren bestelako arauen arabera dagozkien gainontzekoez gain, hurrengo betebeharrak izanen dituzte:

- a) EXFren gobernu organoen erabakiak onartzea, legeen edo Estatutuen arabera tarteka ditzaketen helegiteei uko egin gabe.
- b) EXFren gobernu organoekin lankidetzak aktiboa edukitzea.
- c) Une orotan lagunkide, epaile, antolatzaile eta abarrekin jokabide zuzena mantentzea. Era berean, kirol honen praktikatzaileari eskatzen zaion moduan, etika eta kiroltasunez aritzea.
- d) Nazioarteko lehiaketetan EXF ordezkatzeko, hautatuak izan direnean, edo euren kirol emaitzengatik ordezkapen hori erdietsi dutenean.
- e) Txapelketetan parte hartzeko, Arautegi honetan eta Lehiaketaren Oinarrietan ezarritako arauari men egitea.

### **17. artikulua.**

Espainiako Estatutik kanpoko nazionalitatea duten jokalariek federatuek, izan ditzaketen bestelakoez gain, aurreko artikuluko a), c) eta e) ataletan zehaztutako betebeharrak izanen dituzte.

### **18. artikulua.**

Klub federatuek, Estatutuen eta aplikagarri diren bestelako arauen arabera dagozkien gainontzekoez gain, hurrengo betebeharrak izanen dituzte:

- a) Euskadiko taldean parte hartzeko, EXFk esku hartzen duen konpromisoetara eta lehiaketetara joateko bere jokalariek uztea, hautatuak izan direnean, edo euren kirol emaitzengatik postua lortu dutenean, betebeharrak hori egonik klubak data horietan izan dezakeen beste edozein konpromisoren gainetik.
- b) EXFk antolatutako edo homologatutako kirol ekintzetan edo lehiaketetan euren jokalariek federatuek parte hartzea onartzea.
- c) Antolatzeko EXFk emandako probetan, indarrean dagoen lizentziarik ez duten jokalariek parte hartzeari



ez uztea.

- d) Lehiaketa guztietan FIDEk edo EXFk une bakoitzean indarrean dituzten arauak betetzea eta betearaztea.
- e) Parte hartu duten edo parte har dezaketen probetan, euren jokalariek klubei aurkeztutako beren jardunari dagozkion eskaerak eta eskakizunak, dagokion organismo federatiboari bidaltzea. Era berean, jokalariaren intereserako beste edozein eskaera arrazoiturekin, klubaren laguntza eta babesar behar baditu.
- f) Klubaren eta bere jokalarien federazio lizentziak lurraldeko federazioari urtero tramitatzea, zehaztutako epean eta ezarritako baldintzetan.
- g) Federazioko organoen erabakiak onartzea, legeen arabera tarteka ditzaketen helegiteei uko egin gabe.
- h) Izenaren aldaketak jakinaraztea, onarpen federatiboa izan dezaten.
- i) Arautegi honetan ezarritako arauari men egitea, Txapelketetan parte hartzeko.
- j) Arautegi honetan ezarritakoari eta lehiaketa bakoitzerako ematen diren arauari men egitea, taldeen eraketarako, bai jokalaria titularrei bai ordezkoei dagokienez.

## **19. artikulua.**

Zuritu gabeko ez aurkezteagatik edo antzeko zioengatik, torneo batetik kanporatua den jokalaria edo taldeak torneoan jaso litzakeen ekonomi edo kirol eskubideak galduko ditu, eduki litzakeen diziplina zigorren kalterik gabe.

## **IV.TITULUA. EUSKADIKO TXAPELKETEZ.**

### **1. Kapitulua. Euskadiko Txapelketen antolaketaz.**

## **20. artikulua.**

1. EXFren lehiaketen antolaketa, eta, beraz, egingen diren bermea Euskal Xake Federakuntzari dagozkie.
2. EXFk antolaketa esleii edo eskuorde diezaioke Lurraldeko Federazio bati, edo xakeko klub bati, edo organismo bati eta baita ere pertsona edo entitate pribatu bati, beti ere ezarritako arauak beteko direla bermatzeko kontratu idatzia eginda, beharrezkoa jotzen bada.
3. EXFk, gutxienez, urtero hurrengo probak antolatu beharko ditu:  
  
Klubeko Taldeen arteko Euskadiko Txapelketa.  
Adin orotako Euskadiko Banakako Txapelketa.
4. EXFk banakako eta taldekako xakeko beste jarduerak edo lehiaketak antolatzen edo eskuordetzen saiatuko da, zortzigarren eta bederatzigarren kapituluetan aipatzen direnak bezalakoak.
5. EXFk bere txapelketen antolaketarako eskaintzen lehiaketa dei dezake. Kasu horretan, Zuzendaritza Batzordeak argitaratuko ditu Txapelketen xehetasunak, aurkezpenerako epea eta emateko baldintzak, beharrezkoa jotzen badu. Eskaintzarik ez balego, edo ematea komenigarri ez bada, EXFren aldetik Txapelketaren antolaketa zuzena aukera daiteke.
6. EXFk lehiaketa bakoitzerako berariazko izendapena onar dezake, diru babesleekin adostuta edo lehiaketaren publizitaterako.

**21. artikulua.**

Lehiaketa bakoitzeko inskripzio kuota eta joan-etorrietarako gastuen ordaina (eginen balira) EXFko Zuzendaritza Batzordeak onartuko ditu eta deialdiaren dagokion zirkularrean zehaztuko dira.

**22. artikulua.**

Txapelketan esku hartzen duten epaileen ordainsariak, eta egonaldi eta mantenu gastuak, EXFren Aurrekontuaren kontura joanen dira, eskaintzetarako ezarritako lehiaketaren ondorioz antolatzaileak bere kontura hartzen dituenean izan ezik.

**23. artikulua.**

Euskadiko Banakako Txapelketa guztietan, lehenengo txanda hasi aurretik, Lehiaketa Batzordea eratu ahal izanen da, Arautegi honetan ezarritako betebeharren arabera. Ez bada eratzen, EXFko Kirol Diziplina Batzordeak jardungo du.

**24. artikulua.**

Hasierako data baino 30 egun lehenago, gutxienez, deituko ditu EXFk Txapelketa ofizialak.

Euskadiko Kirol Federazioen 12/2006 Dekretuko 39. artikulua ondo onartutako, Lehiaketak eta probak, orokorrean, izaera mistoa izanen dute.

**25. artikulua.**

EXFk ezarriko ditu lehiaketa bakoitzaren joko erritmoak, dagozkien deialdien zirkularretan.

Jardunaldi berean jokatu beharreko txanda kopuruak ezin izanen du gainditu nazioarteko ebaluazioa duten partidetarako Xakeko Nazioarteko Federazioaren (FIDE) Araudian onartutakoa.

**26. artikulua.**

1. Epaile nagusia jokoaren baldintzen eta beharren multzoa betetzen ari ote den egiaztatuko du.

2. Epailearen erabaki baten aurkako eskakizunak Lehiaketa Batzordeari zuzendu beharko zaizkio, idatziz, arduradunak (soilik egoitza amankomuna duen taldekako lehiaketa baldin bada) eta jokalarik interesatuak sinatua, partida edo neurketa (eskakizuna sortu zuen gertakariaren partida barruan duena, taldekako kasuan) bukatu ondorengo ordu bateko epean.

Euskal Ligako gainontzeko partiden garapenean egiten diren eskakizunak Lehiaketaren Oinarrietan ezarritakoari atxikiko zaizkio.

**27. artikulua.**

1. EXFko ordezkariak, epaile nagusiak eta Lehiaketa Batzordeak txostena egin beharko dute jorrotutako gaiei eta hartutako ebazpenei buruz. Lehiaketa bukatzean, aipatutako txostenak kontutan hartuta, Txapelketako Zuzendaritzak dossiera bidaliko dio Euskal Federakuntzari, epaile nagusiak ere sinatua. Bertan idazteko orritxoak, sailkapen koadroak eta eloaren baloraziorako orriak barneratuko dira. Txapelketa amaitu ondorengo zazpi eguneko epea izanen da horretarako.

2. Epaile nagusiaren, EXFko ordezkariaren eta Torneoeko zuzendariaren funtzioak Arautegi honetako 43. eta ondorengo artikuluetan definituta daude.



## 28. artikulua.

1. Parte hartzaileentzat eta publikoarentzat joko aretoaren irekiera, gutxienez, txanda bakoitzaren hasiera baino 15 minutu lehenago eginen da, hasierako harrera edo amaiera-ekitaldirako aurreikusitakoa salbu. Jokalariek, epaileek, taldeko kapitainek eta antolakuntzak baimendutako pertsonak haiei emandako agiria ikusgarri eraman beharko dute.
2. Beren partidetan zehar joko aretoa utzi behar duten parte hartzaileek epaile taldeari eskatu beharko diote. Beren partidak behin amaituta, jokorako atondutako tokia utzi beharko dute jokalariek.

### 2. Kapitulua. Euskadiko Txapelketetan Espainiako Estatutik kanpoko jokalarien parte hartzeaz.

## 29. artikulua.

1. Nazionalitate bikoitza duten jokalariek federatu espainiarrak ondorio guztietarako espainiar moduan hartuko dira Hala ere, Euskal eta Estatu mailako Banakako Txapelketa Ofizialetan parte hartzeko (Beteranoen Txapelketan izan ezik), edo atzerrikoen plaza bete gabe Taldekako Txapelketa Ofizialetan parte hartzeko Arautegi honetako 13.e) artikuluaaren arabera selekzionarako hautatzeko modukoak izan beharko dute.
2. 18 urtez azpiko Espainiako Estatutik kanpoko jokalariek, atzerritar baten plaza bete gabe, Euskadiko Txapelketa Ofizial guztietan parte hartzerik izanen dute, egoitza baimena baldin badute edo Euskadin eskolatuak baldin badaude. FIDEn atzerriko banderapean ez dute agertu behar.
3. 18 urtez goitiko Espainiako Estatutik kanpoko jokalariek, atzerritar baten plaza bete gabe, Euskadiko Txapelketa Ofizial guztietan parte hartzerik izanen dute, hurrengo baldintza guztiak betetzen badituzte:
  - a) Elo FIDEn eta FEDAn 2.200 edo gutxiagokoa izatea.
  - b) Euskadin 3 urteko antzintasunaz egoitza egiaztatzea.
  - c) FIDEn atzerriko banderapean ez agertzea.
4. Nazioarteko lehiaketetan Euskadi ordezkatzeko, bai banaka bai taldeka, beharrezkoa izanen da FIDEn atzerriko banderapean izendatua ez egon eta horrela ez agertzea.

## 30. artikulua.

1. Nafarroako Xake Federakundeko jokalariek eta klubek Euskadiko Txapelketetan parte hartzerik izanen dute, hurrengo betebeharrak betetzen badituzte:
  - a) Nafarroako Xake Federakundearen bidez, indarrean dagoen lizentzia edukitzea.
  - b) Atzerriko nazionalitatekoa ez izatea.
  - c) Dagozkien Oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzea.
2. Jokalari nafarrek Euskadi ordezkatzetik izanen dute, selekzioen arteko lehiaketetan.
3. Euskadiko Txapelketetan lehenengo tokian sailkatzen diren jokalariek edo klubek modalitate edo kategoria bakoitzean aitortzen diren eskubideak izanen dituzte, klubei dagokienez sailkapena eta FEDAn ordezkapena izan ezik.

### 3. Kapitulua. Antolatzaileaz.



### 31. artikulua.

Arautegi honen ondorioetarako, Antolatzaileaz haxe ulertuko da: Txapelketa jakin baten antolaketa EXFk eman dion pertsona edo entitatea.

### 32. artikulua.

1. Xakeko jarduerak EXFk zuzenean antolatuko ditu, edo Euskadiko Txapelketen antolaketarako lehiaketa dei dezake, 20. artikuluko 5. atalak aurreikusitakoaren arabera.

2. Betebeharrak ezagututa, EXFri antolatzaileek proposamenak bidaltzeko epe bat zabalduko da. Txapelketak antolatzeko proposamenak EXFko Zuzendaritza Batzordeari zuzendu beharko zaizkio, honek dagokion esleipena erabaki dezan (eskaintzarik onenak kontutan hartuta, bai antolaketa aldetik, bai ekonomikoki), edo probaren antolaketa zuzenean har dezan.

3. Proba ofizialak EXFren eta antolatzailearen artean adostutako datetan egingen dira. Ohiz kanpoko arrazoiak ez badira, urriaren 31ra arteko programan EXFk aurrikusitako epean izan beharko dute, jokalariera sailkatuta duten Euskadiko bi Txapelketa data berean ez egiten saiatuta.

4. EXFk Euskadiko Txapelketetan parte hartzaile kopurua aldatzeko ahalmena du, Txapelketa bakoitzaren Oinarrietan zehazten denaren arabera.

5. Proposamenek Txapelketaren aurrekontua osorik edo zatika finantzatzeko eskaintza ekonomikoa izanen dute.

## 4. Kapituluak. Joko aretoaz.

### 33. artikulua.

1. Joko aretoak zabalera nahikoa izan beharko du, parte hartzaile, antolakuntza eta epaileen kopuruarekiko proportzioan. Era berean joan daitekeen publikoarentzat gordetako espazioa ere bai. Argitasun ona, zaraten arrazoizko ausentzia, komunetarako sarbide erraza eta jokoaren garapen hoberako tenperatura atsegina ere izan beharko ditu. Gainera, jokorako mahaiak eta aulkiez gain, epaileentzako mahaiak eta aulkiak, eta leku oso ikusgarrian sailkapen koadroa eta informazio ofiziala ere bai.

2. Joko aretoak indarrean dauden Segurtasun eta Higienarako prebentzioko oinarrizko arauak bete beharko ditu. Larrialdietarako plan egokia izan behar du.

Halaber, minusbalioa duten pertsonen sarbidea erraztu beharko zaie.

3. Joko aretoaren ondoan beste batek egon beharko du, hainbat joko eta taularekin, jokalariek partidak aztertu ahal izateko, horrela joko aretoan bertan egitea galarazteko.

4. Eliteko kirol ekintzetan komunikabideetako langileentzat beharrezko azpiegitura duen esparrua aurrakusi egin behar da. Hala bada, ikus-entzunezko eta informatikako tresnen bidez jarraipen eta kontrol tekniko egokirako ere bai.

### 34. artikulua.

1. Jokorako mahaiak 70 x 70 zentimetroko gutxienezko neurriak izan beharko dituzte. Mahai hauek jarraian doazen taulen bidez ordezkatu daitezke, aipatutako zabalera baldin badute eta jokalariek bakoitzari 70 zentimetro edo gehiagoko luzerako espazioa uzten baldin bazaio. Mahaiak edo jarraian doazen taulak estali behar badira, kolore berdea nahiago izanen da.



2. Aulkiek erosoak izan behar dute eta jokorako mahaien altuerarekiko proportziokoak.

### **35. artikulua.**

1. Zurezkoak, plastikozkoak edo antzeko materialez izan behar dute taulek, margotuak edo mate koloreetan landuta, argiaren islada ekiditeko. Laukiek alboko 4, 5 edo 6 zentimetrotakoak izan behar dute.

2. Piezek Staunton modelokoak edo antzekoak izan behar dute, laukiaren tamainarekiko harmonian.

3. Balizko galerak ordezteko ordezeko taulen eta jokoen aurreikuspenak guztizkoaren % 5a izan behar du.

### **36. artikulua.**

Erlojuak antzeko erakoak izaten saiatuko da, uniformetasuna gordetzeko. Eta markak fidagarritasunekoak izaten. Balizko galerak ordezteko ordezeko erlojuen aurreikuspenak guztizkoaren % 15a izan behar du.

### **37. artikulua.**

Adin orotako Txapelketa ofizialean, interneten bidez partida batzuk ematerik izanen da (txanda bakoitzean interesik handiena dutenak). Horretarako emandako berariazko arauak onartu behar dituzte jokalariek (jokoaren garapen normala inoiz eragiterik izanen ez duten arauak).

## **5. Kapituluua. Euskadiko Txapelketetan parte hartzeko baldintzez.**

### **38. artikulua.**

1. Adin Orotako Euskadiko Txapelketan EXFren Aurrekontuen bizkar etorriko diren jokolari eta epaile jakin batzuk izan daitezke

2. Joko aretoa ostatu tokiaren ondoan egonen den lokalean izaten saiatuko da.

### **39. artikulua.**

1. Mantenua ostatuaren tokian bertan izanen da edo hurbileko jatetxe batean.

2. Ostata eta mantenua lehenengo txandako egonalditik Txapelketa bukaerara arte izanen da. Amaiera ekitaldia eta sari banaketa joko dira Txapelketaren bukaera.

### **40. artikulua.**

Euskal Ligan talde parte hartzaileen bidaien gastuak zehaztuko diren kopuruetan eta eran ordaintzerik izanen da.

### **41. artikulua.**

1. Txanden inguruko informazioak, sailkapenak eta jokalarientzat eta zaleentzat interes orokorreko informazioak torneoaren web orrian edo EXFren web orri ofizialean argitaratuko dira.

2. Adin Orotako Txapelketako eta Euskal Ligako partida hautatu batzuk argitaratuko dira.

### **42. artikulua.**

Antolakuntzak kokapen jakineko osasun laguntzarako harremanen bat eduki beharko du, lehiaketa bitartean bapateko beharra gertatzen denerako.



## **6. Kapituluua. Torneoa zuzendu eta gainbegiratzeko organoez.**

### **43. artikulua.**

1. Lehiaketan Federazioko ordezkaria izendatzerik izanen du EXFk.
2. Izendatutako Federazioko ordezkaria Torneoko zuzendaria ere izan daiteke.
3. Federazioko ordezkariak Arautegi honetan zehazten diren funtzioak izanen ditu.

### **44. artikulua.**

1. EXFko Epailen Batzorde Teknikoak epaile nagusia eta, beharrezkoa bada, epaile ondokoa izendatuko ditu. Epaile nagusia epaile titulatu izanen da. Lehiaketa bakoitzerako egokienak izan daitezen saiatuko da.
2. Antolatzaileak koadro teknikoa osatzerik izanen du, epaile laguntzaileekin.

### **45. artikulua.**

1. Maila honetako proben antolaketan frogatutako eskarmentua izan behar duen Federazioko ordezkaria EXFko lehendakariak izendatuko du.
2. Izendapena eragingarria izanen da, amaiera ekitaldia bukatu ondoren, dagozkion txostenak igorri eta antolakuntzarekiko konpromisoa amaitutzat jo arte.

### **46. artikulua.**

Bere karguari berezko funtzioak izanik EXFko lehendakariak agindutakoaz gain, Federazioko ordezkariak hurrengo funtzioak izanen ditu:

- a) Antolatzaileen, agintarien, talde teknikoaren eta lehiaketarekin zer ikusirik duten jokalarien edo klubuen aurrean EXF-a ordezkatzea. EXFko lehendakaria bertan dagoenean, ordezkari hura behin-behinean etenda geratuko da.
- b) Proba antolatzeko interesa duten organismo, klub edo pertsoneri laguntza ematea, proba eskatu aurretiko informazioari dagokionez.
- c) Eskatzaileek proba antolatzeko biltzen dituzten baldintzen inguruan EXFko Zuzendaritza Batzordeari aholkua ematea (aurretik bidaiak eginda, beharrezkoa bada).
- d) Komenioa sinatzeko, Lehendakariari edo Zuzendaritza Batzordeari laguntza ematea, haiek eskatzen badiote.
- e) Probaren onuran izaten bada eta adostutakoa bete edo hobetzeko helburuz, eskatzen duten guztian antolatzaileei aholkua ematea.
- f) Argitaratu aurretik, Oinarri teknikoen berri izatea, aldaketa batzuren komenigarritasunaz epaile nagusiari aholkua eman ahal izateko. Hala ere, praktikan jartzeko azkeneko erantzukizuna epaile nagusiarena izanen da. Txapelketen Arautegi honetan zehaztutakoaren aurka atalen bat dagoela ohartu ezean, orduan aldaketa exijitu behar baitu Federazioko ordezkariak.



g) Lehiaketa bitartean, zehaztutako guztia antolakuntzak betetzen duela zaintzea. Baita ere Antolakuntza Teknikoaren jarduera Arautegi honekin, ezarritako Oinarriekin, eta FIDEn lege eta arauekin bat datorrela zaintzea.

EXFk Federazioko ordezkariaren oniritzia eskatzerik izanen du, antolatzaillearekin adostutakoa betetzen dela hobeto kontrolatzeko.

h) Txapelketen garapenean gertatutakoaz EXFko lehendakaria informatzea.

## **7. Kapituluua. Lehiaketa baten antolaketa teknikoaz.**

### **47. artikulua.**

Lehiaketaren Organo Teknikoak Torneoko zuzendaria, epaile nagusia, epaile ondokoa, epaile laguntzaileak eta Lehiaketa Batzordea izanen dira.

### **Epaile Nagusiaz.**

### **48. artikulua.**

1. Arautegi honetako 44.1 artikuluaaren arabera izendatua izanen den eta titulazioa eta eskarmentua izan behar dituen epaile nagusiak hurrengo funtzioak eta erantzukizunak izanen ditu:

a) Lehiaketaren erantzule teknikoa izanen da. Baita ere indarrean dauden joko arauen, Oinarrietan zehaztutakoaren eta FIDEn arauen aplikazio zuzenaren erantzule teknikoa. Beharrezkoa ikusten bada, epaile ondokoak eta laguntzaileak hezi egingen ditu.

b) Arautegi eta Lehiaketaren Oinarri hauetan eta une bakoitzean indarrean dauden FIDEn arauetan zehaztutakoaren arabera Oinarri teknikoak aurkeztuko ditu eta Federazioko ordezkaria informatuko du. Edozein modutan, beren aplikazioaren erantzukizuna epaile nagusiarena izanen da.

c) Federazioko ordezkariarekin lankidetzan izanen du materialaren eta instalakuntzen berrikuspen teknikoan. Instalakuntzak eta jokorako materiala gainbegiratuko ditu eta antolatzailleak jakinaren gainean jarriko ditu hautemandako akatsez. Konpontzen ez badira, Federazioko ordezkaria ohartaraziko du, adostutakoa ez betetzearen arrazoia ote den azter dezan.

d) Funtzio osagarriak banatuko ditu epaile ondokoen eta laguntzaileen artean, beharrezkoa bada.

e) EXFk emandako parte hartzaileen hasierako zerrenda baieztatu eta suitzar sistemaren bidez parekaketak egingen ditu, indarrean dagoen FIDE Arautegian ezarritako guztia une orotan betez. Era berean, txanda bakoitzaren ondorengo sailkapenak eta azkeneko sailkapena egingen ditu, ezberdinketa sistemak aplikatuta.

f) Txanda bakoitzaren ondoren, formatu informatizatuan parekaketak eta sailkapenak emanen dizkio antolakuntzari, web orrian argitaratzeko. Halaber, lehiaketaren iragarki oholean jarriko ditu.

g) Torneoa bere ondoko ordezkaria izendatuko du, aldi baterako edo behin betiko bere ausentzietarako. Lehenengo txanda hasi baino lehen egin behar da izendapen hau. Torneoa epaile ondokorik ez balitz, Epaileen Batzorde Teknikoaren alde aurretiko aholkua hartuta, epaile laguntzaile bat izendatuko du horretarako.

h) Proba behin bukatuta, EXF, FEDA eta FIDErantzako derrigorrezko txostenak egingen ditu. Txosten hauen kopia antolakuntzari eta Federazioko ordezkariari emanen die.



- i) Titulaziorako lortutako normetarako edo rating-erako ziurtagiriak luzatuko dizkie eskatzen dituzten jokalariei.
- j) Joko aretoan epaile ondokoen eta laguntzaileen kokapena erabaki eta haiei emandako funtzioak betetzen ote dituzten gainbegiratuko du.
- k) Antolatzailearekin eta Federazioko ordezkariarekin ahalik eta gehieneko lankidetzan mantenduko du une orotan, probaren arrakasta lortzeko.

### **Epaile Nagusiaren Ondokoez.**

#### **49. artikulua.**

1. Arautegi honetan ezarritakoaren arabera izendatuko dira epaile ondokoak. Hurrengo funtzioak izanen dituzte:

- a) Epaile nagusiak erabakitako aretoaren sektorean Xakeko legeak, Torneoko Oinarri Teknikoak eta Torneorako FIDEren arauak betetzen direla zaintzea.
- b) Partidak hasi baino lehen eta berrasi aurretik erlojuak eta piezak ikuskatzea.
- c) Partidak gerorako uzteko agintzea, beharrezkoa bada. Estalkian beharrezko datuak zuzen daudela egiaztatuko du. Partidak berrastean presente egonen da eta Xakeko Legeek adierazten dutenaren arabera estalkia irekiko du. Hori guztia, epaile nagusiak erabakitako gida lerroen arabera.
- d) Partidak bukatzean, lehiakideei idazteko orritxoak sinatzeko eskatuko die eta epaile nagusiari hauek eman.
- e) Xakeko legeen eta Oinarri Teknikoen gainean sor daitekeen edozein gatazka lehenengo auzialdian ebatziko du, epaile nagusiari ahalik eta azkarren kontua emanda, eta horien inguruko interpretazioaz zalantzaren bat izanez gero bere lankidetzan ere eskatuko du.
- f) Bere karguko berariazko funtzioa izanik, epaile nagusiak emandako beste edozein.

2. Lehiaketatik epaile nagusiaren aldi baterako edo behin betiko ausentzietan, epaile ondokoak ordeztuko du, Arautegi honetan ezarritakoaren arabera.

### **Epaile laguntzaileez.**

#### **50. artikulua.**

- 1. Oinarrizko ezagutzak izan behar dituzten epaile laguntzaileak antolatzaileak proposatuta izendatuko dira. Lehiaketaren funtzionamenduaren inguruak epaile nagusiak edo ondokoak emandako funtzioak izanen dituzte.
- 2. Torneoko epaile nagusia, edo ondokoa, ordeztuko dute, Arautegi honetako 48. artikuluko g) atalean zehaztutakoaren arabera.

### **Lehiaketa Batzordeaz.**

#### **51. artikulua.**

Xakeko legeen, Oinarri Teknikoen edo FIDE arauen inguruko auzietan, epaileen erabakien aurka jokalariek edo ordezkariak egindako eskakizun guztiak ebatziko ditu Lehiaketa Batzordeak.

**52. artikulua.**

1. Lehiaketa Batzordea hiru kidek eta ordezeko batek osatuko dute. Lehiaketaren lehenengo txanda baino lehen eratuko da Batzorde hau.
2. Bere erabakiak errespetatuak izanen dira, Apelazio Batzordeak ezeztatzen dituenean izan ezik. Dagozkion diziiplina alderdiez, EXFko Diziiplina Batzordea informatuko da.

**53. artikulua.**

1. EXFko ordezkariak Lehiaketa Batzordeko kide-lehendakaria izaterik badu.
2. Gainontzeko kideak Txapelketako parte hartzaileen artean hautapenez izendatuko dira (banakako txapelketetan jokalarien artean, eta amankomuneko egoitza duten taldekako txapelketetan eta 16 urtez azpikoentzako probetan ordezkarien artean).
3. Edozein gisan, 16 urtez goitikoak soilik izanen dira hautatzeko modukoak.

**54. artikulua.**

1. Lehiaketa bitartean modu iraunkorrean bere funtzioetan jardunen duen Lehiaketa Batzordea, presazko bileran bilduko da, lehendakariak deituta, kide baten eskariz edo jokalariren edo ordezkariaren baten eskakizunagatik.
2. Batzordearen Ebazpenak gehiengo soilaz hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoa kalitatekoa izanen da. Berak ebazpena idatzi beharko du, aldeei eta epaile nagusiari emateko.

**55. artikulua.**

1. Ebatzi beharreko auzian inplikatuak dauden, edo ezberdinketarako edo beste arrazoiengatik hartu beharreko erabakian interesa izan dezaketen Batzordeko kideek, ez dute bileran parte hartzerik izanen. Beren postua utzi beharko diote ordezeko baliagarriari.
2. Lehen aipatutako bateraezintasuna Batzordeko lehendakariak adieraziko du, bere irizpideagatik edo alde baten eskakizunagatik. Soilik Batzordeak berak ezezta dezake erabaki hori, beste eskakizun bat balitz bezala.
3. Kideen bateraezintasunagatik, edo beste arrazoiengatik, bere hiru kideekin osatzerik ez badu, bi kiderekin ebazpenak hartzerik izanen du, eta baita ere lehendakariarekin bakarrik, lagun bakarreko organo gisa jardunda. Edozein modutan, Batzordeko lehendakari gisa, EXFko ordezkariak beti parte hartuko du Batzordean.

**8. Kapituluua. Kluben arteko Lehiaketez.****56. artikulua.**

EXFko Zuzendaritza Batzordeak Euskal Ligako Lehiaketaren Oinarriak ezarriko ditu, 57.etik 87.erako artikulua zabalduz. Oinarri tekniko hauek Txapelketaren Deialdiaren Zirkularrean jakinaraziko dira eta EXFko web orrian erakutsi.

**57. artikulua.**

1. Sailkatu, erregistratu eta EXFn indarrean dagoen lizentzia federatiboa duten klubek Taldekako Euskadiko Txapelketa ofizial federatuetan parte hartuko dute.



2. Gonbidatuta, sailkatutako talde nafarrek ere parte hartzerik izanen dute (komenioa).

### **58. artikulua.**

Taldekako Lehiaketaren egutegia EXFk ezarriko du eta Txapelketaren deialdian zehaztuko da.

Euskal Ligan egun batean bi neurketa baino gehiago jokatzetik ez da izanen.

### **59. artikulua.**

Puntuazioa neurketako izan daiteke, edo sistema olinpikoaren bidez, mahai bakoitzean izandako banakako emaitzak batuta neurketa bakoitzean. Zuzendaritza Batzordeak onartu behar duen deialdian zehaztuko da.

### **60. artikulua.**

Zerrenden aurkezpena:

1. Amankomuneko egoitzan ez den Taldekako Lehiaketako txanda bakoitza hasi baino lehen taldeetako ordezkariak edo kapitainek jokatu behar duten jokalarien zerrenda aurkeztuko diote epaileari edo, bera ez bada, talde aurkariko ordezkariari edo kapitainari. Amankomuneko egoitzan jokalarien zerrenda osoa aurkeztuko zaio epaileari, joko hasiera baino 15 minutu lehenago. Balizko ordezkapenak zerrendaren arabera egin behar dira.

2. Espainiako Estatutik kanpoko jokalarien mugapena Lehiaketaren Oinarrietan zehaztuko da, beti ere jokalarien % 50 "hautatzeko modukoak" izanik.

3. Parte hartzaileek zerrendako ordenaren inguruko arauak ez betetzeak ukitutako mahaietan puntuen galera ekarriko du berekin automatikoki.

### **61. artikulua.**

Talde bat erabatekoan aurkezten ez bada, 4-0 galduko du neurketa, Oinarrien eta EXFko Diziiplina Arautegiaren arabera dagokion zigorraz gain. Deialdian edo Oinarri teknikoetan ezartzen den denbora muga baino geroago aurkezten den taldeak ere urratze bat eginen du.

### **62. artikulua.**

Neurketa guztietan, taldeek bi mahaietan pieza zuriez jokatu dute eta beste bi mahaietan pieza beltzez.

### **63. artikulua.**

1. Talde guztiek ordezkaria edo kapitaina izendatzeko betebeharra izanen dute. Jokalaria ere izan daiteke. Taldearen inskripzioan ordezkaria edo kapitainaren datu pertsonalek agertu beharko dute.

2. Ordezkaria edo kapitainak funtzio administratiboak ditu: Neurketa bakoitzean jokatu duten jokalarien zerrenda aurkeztea, jokalarien jokabide zuzena zaintzea, neurketaren akta sinatzea, egoki ikusiz gero epaileari edo Batzordeari inpugnazio edo alegazioak aurkeztea.

3. Kapitainak edo ordezkariak jokoaren bitartean parte hartze oro saihestu behar du. Bereziki, egindako mugimenduen kopuruaz eta joko erritmoaren kontrolak gainditzeko zailtasunez ez du jokalaria informatu behar.

4. Kapitainak edo ordezkariak bere taldeko jokalaria berdinketa eskatzeko aholkua emateko ahalmena du edo jokalaria aurkariak egindako berdinketa proposamena onartzeaz ere bai, baina ordezkariak ezin du



jokatzen ari den partidaz inolako komentariarik egin edo informaziorik eman.

#### **64. artikulua.**

Neurketa bakoitzaren aktak epaileak eta taldeetako ordezkariak sinatuta izanen dira.

#### **Kluben arteko Taldekako Euskadiko Txapelketa.**

#### **65. artikulua.**

1. Arautegi honetan zehaztutakoaren arabera Txapelketan parte hartzeko eskubidea duten taldeek EXFn inskribatu beharko dute, deialdiaren zirkularrean ezartzen den epean eta eran.

2. Talde bakoitzak dagokion Kategoria edo Mailan inskribatu beharko du. Hurrengoak ezartzen dira:

- Ohorezko Maila.
- Lehenengo Maila.
- Kadeteen taldeak / 16 urtez azpikoak.
- Eskola adineko taldeak / 14 urtez azpikoak.

3. Inskripzioa egitean gutxienez hurrengo informazioa aurkeztuko da:

- a) Izena, helbidea, joko aretoa, klubaren posta elektronikoa, telefono zenbakia eta faxa, taldeko ordezkari edota kapitain arduraduna.
- b) Jokalarien zerrenda (Ohorezko Mailan parte hartzen duten jokalaria kopuru gutxienekoa duen zerrenda finkoa duena).
- c) Taldeetako parte hartzaileek federatuak egon beharko dute.

#### **66. artikulua.**

Neurketa bat edo batzuk tarteko toki batean jokatzea ezar daiteke edo txanda bat edo batzuk denak elkarrekin (amankomuneko egoitzan), egutegian beharrezko aldaketak eginda, joan-etorrietan oreka lortzeko. Dena den, parekaketetan taldeei dagozkien koloreak kontutan hartuko dira.

#### **67. artikulua.**

1. Txapelketan parte hartzen duten taldeei bideratutako laguntzen zenbatekoa eta justifikatzeko era urtero finkatuko ditu EXFko Zuzendaritza Batzordeak.

2. Fidantzak eta inskripzio kuotak ezar daitezke talde parte hartzaileentzat. Kirol falta larriagatik kanporatuak izan ez diren eta antolaketa arauak bete dituzten taldeei fidantzak itzuliko zaizkie, lehiaketa behin amaituta.

#### **68. artikulua.**

Taldeetako jokalarien hasierako zerrendan dagozkien ranking-aren araberako ordena alda daiteke, beti ere eloko 51 puntuko aldeaz jokalaria bat ez bada lekualdatzen.

Jokalaria berriak gehitzea Lehiaketaren Oinarrietan ezarritakoak arautuko du.

**69. artikulua.**

Klubeko taldeen arteko neurketa bakoitzean, Nazioarteko Txapelketa Ofizialetan EXF ordezkariak ezaketen bi jokalaririk, gutxienez, sartu beharko ditu talde bakoitzak, Arautegi honetan ezarritakoaren arabera.

**70. artikulua.**

Hasi baino lehen, epaileak, edo bere ordezkariak, kapitainek edo ordezkariak jokalarien identitatea egiazta dezakete. Edozein momentutan, epaileak edo talde aurkariak jokalaririk baten identitateaz zalantzarik bat baldin badute, akta ofizialaren atzetik sinatzeko edo egiaztatzeko agiri ofizial bat aurkezteko eska diezaizkete jokalaririk.

Ondorio guztietarako, jokalaririk bat neurketako akta ofizialean baldin badago, jokatzeko jarritakotzat joko da.

**71. artikulua.**

Jokatzeko jokalaririk zerrenda ez legezkoren ondorioak edo jokalaririk bat ez aurkeztearenak Lehiaketaren Oinarrietan ezarrita egonen dira.

**Ohorezko Mailako Kluben arteko Taldekako Euskadiko Txapelketa.****72. artikulua.**

1. 10 taldek osatuko dute.

2. Oinarri Teknikoetan Lehenengo Mailara jaitsiko diren plazak zehaztuko dira eta baita ere Lehenengo Mailatik Ohorezko Mailara igoko direnak, azkeneko sailkapenetan lortutako postuaren arabera.

**73. artikulua.**

1. Taldeen hutsuneak Oinarri Teknikoetan zehaztutakoaren arabera beteko dira.

2. Joko sistema itzuli bateko Liga izanen da.

3. 10 taldeen parte hartzea Oinarri Teknikoetan adieraziko da.

**74. artikulua.**

Ligako lehenengo sailkatutako taldea Euskadiko txapelduna izanen da.

**75. artikulua.**

Jokalaririk zerrendan balizko aldaketak Lehiaketaren Oinarrietan aurreikusita egonen dira.

**76. artikulua.**

Round Robin sistemarako taldeei dagozkien zenbakiak zozketatuko dira. Zozketa publikoaren emaitza Lehiaketaren Oinarrietan adieraziko da.

**77. artikulua.**

Taldeen azkeneko sailkapenean puntuak berdinketa hautsiko da Lehiaketaren Oinarrietan ezarritako ezberdinketa sistemen ordenari jarraituta.



**78. artikulua.**

1. Talde irabazlea Ohorezko Mailako Euskadiko Txapelaren titulua jasoko du.
2. Saikapenaren ordenak FEDA Txapelketarako saikapena zehaztuko du.

**Lehenengo Mailako Kluben arteko Taldekako Euskadiko Txapelketa.**

**79. artikulua.**

1. Aipatutako Lehiaketaren Oinarrietan barneratutako 10 taldeek parte hartzeko eskubidea izanen dute.
2. Deialdian bertan Lurralde mailara jaitsiko diren plazak eta Ohorezko Mailara igoko direnak zehaztuko dira, azkeneko saikapenean lortutako postuaren arabera.

**80. artikulua.**

Taldeen hutsuneak Oinarri Teknikoetan zehaztutakoaren arabera beteko dira.

**81. artikulua.**

Joko sistema itzuli bateko Liga izanen da.

**82. artikulua.**

10 taldeen parte hartzea Oinarri Teknikoetan adieraziko da.

**83. artikulua.**

Ligako lehenengo sailkatutako taldea Lehenengo Mailako Euskadiko txapelduna izanen da.

**84. artikulua.**

Jokalarien zerrendan balizko aldaketak Lehiaketaren Oinarrietan aurreikusita egonen dira.

**85. artikulua.**

Round Robin sistemarako taldeei dagozkien zenbakiak zozketatuko dira. Zozketa publikoaren emaitza Lehiaketaren Oinarrietan adieraziko da.

**86. artikulua.**

Taldeen azkeneko saikapenean puntuen berdinketa hautsiko da Lehiaketaren Oinarrietan ezarritako ezberdinketa sistemen ordenari jarraituta.

**87. artikulua.**

Saikapenaren ordenak Ohorezko Mailako Txapelketarako saikapena zehaztuko du.

**16 urtez azpiko Euskadiko Taldekako Txapelketa.**

**88. artikulua.**

Euskadin federatutako klubak ordezkatzeko taldeen parte hartzeari irekia gera daiteke Txapelketa, Arautegi honetan eta Lehiaketaren Oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen badituzte. Horietan



plazak zehaztuko dira.

Klub bera ordezkatzeko talde bat baino gehiagoren parte hartzea ez da onartuko.

#### **89. artikulua.**

Lehiaketan Lurralde Federazio bakoitzeko talde federatu bat, gutxienez, izanen da.

Aurreikusitako taldeen plazak ere zehaztuko dira Lehiaketaren Oinarrietan.

#### **90. artikulua.**

Indar zerrendan parte hartzen duten jokalariek Txapelketa egiten den urteko urtarrilaren 1 baino lehen 16 urte bete gabekoak izan behar dute.

Talde bakoitzean indar zerrendan, gutxienez, 6 jokalaria sartzerik izanen dute.

#### **91. artikulua.**

EXFk bereziki gonbidatutako klub federatu batzuk, EXFk bereziki gonbidatutako jokalaria federatuekin, parte hartzerik izanen dute.

#### **92. artikulua.**

Inskripziorako eskubideak finkatzerik izanen du Zuzendaritza Batzordeak eta Txapelketaren Deialdiaren Zirkularrean jakinaraziko dira.

#### **93. artikulua.**

Parte hartzearen eta joan-etorrien arabera, sailkapen taldeen eta finalaren sistemaren bidez, edo Liga sistemaren bidez, edo suitzar sistemaren bidez, jokatzerik izanen da, 4 mahaietan.

Txanda kopurua eta joko abiadura Txapelketaren deialdian ezarriko dira.

#### **94. artikulua.**

Talde bakoitza 16 urtez goitiko ordezkari batek ordezkatzeari beharrezkoa izanen da.

#### **95. artikulua.**

Lehenengo txandaren aurretik hasierako ranking-a epaile nagusiak egingen du, hurrengo baldintzen arabera:

Talde bakoitzaren indar zerrendan jokatze moduko lehenengo lau jokalarien eloen batuketaren arabera ordenatuko dira taldeak.

#### **96. artikulua.**

Taldeen azkeneko sailkapenean puntuen berdinketa hautsiko da Lehiaketaren Oinarrietan ezarritako ezberdinketa sistemen ordenari jarraituta, erabaki den joko modalitateari egokituta.

#### **97. artikulua.**

Lehenengo sailkatuak 16 urtez azpiko Euskadiko Talde Txapeldunaren titulua eta FEDA Txapelketarako sailkapena lortuko ditu.



## **Eskola adineko Taldekako Euskadiko Txapelketa (14 urtez azpikoak).**

### **98. artikulua.**

Gaur egun Eskola adineko Euskadiko Txapelketa hauek Euskadiko Erkidego Autonomoko hiru foru lurraldeetako batean lizentzia duten 14 urtez azpiko infantilen taldeentzat dira, gehi Nafarroako gonbidatuentzat.

### **99. artikulua.**

Euskadin eskola adineko jarduera hauen antolaketak Eusko Jaurlaritzaren Eskola Kirol Arloaren gida lerroei jarraitzen die. Euskadiko Finalerako sailkatzen dira lurralde bakoitzeko bi sexutako eskola taldeak, dagokion Foru Aldundiaren araudiarekin.

Lurralde Federazioekin batera, EXFk laguntzen du eta lehiaketen kontrol teknikoa darama.

### **100. artikulua.**

Eusko Jaurlaritzako Eskola Kirol Arloarekin elkarlanean, EXFk Eskola adineko Euskadiko Taldekako Txapelketen deialdia eta Oinarriak argitaratuko ditu eta talde tekniko-antolaketakoa koordinatuko du.

### **101. artikulua.**

Parte hartzeko adina zabaltzen, eskola adinekoen xakeko jardueren araudia eta egutegia moldatzen, eta abar saiatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kirol Arloaren aurrean EXFk kudeaketari jarraituko dio.

## **Euskadin Taldekako beste Lehiaketez.**

### **102. artikulua.**

1. Euskadin Taldekako hurrengo jardueren eta lehiaketen antolaketa suspertzerik izanen du EXFk:

- Xakeko Kluben Euskadiko Kopa.
- Xakeko analisten Taldekako Lehiaketa.

2. EXFk Xakeko Euskal Zirkuituaren jarraipena eta koordinazioa egingen ditu (Adiskidetasunaren Kluben Zirkuitua).

3. Hasiera baino 30 egun lehenago, gutxienez, EXFk aurreko proben deialdia egin eta dagozkien Oinarriak argitaratuko ditu.

## **9. Kapituluua. Banakako Lehiaketez.**

### **103. artikulua.**

1. Euskadin ofizialak diren banakako lehiaketa federatuetan, indarrean dagoen EXFko lizentzia federatiboa duten bi sexuetako jokalariek parte hartuko dute.

2. Aldez aurrezko eskariz, hurrengo ataletako baldintzak betetzen dituzten EXFk bereziki gonbidatutako jokalaria federatuek ere parte hartzerik izanen dute:

a) Euskadin gutxienez 3 denboraldi jarraian edo 5 era ez jarraituan federatuak egon diren FIDE tituluko hautatzeko moduko jokalariek.

b) Euskadin jaio edo, gutxienez, 3 urtez bizi izan diren FIDE tituluko hautatzeko moduko jokalariek.



- c) Euskal Liga edo Euskal Selektzioarekin jokatu duten FIDE tituluko hautatzeko moduko jokalaria.
- d) Nafarroako Federazioan sailkatutako EXFn hautatzeko moduko jokalaria (komenioa).
- e) Lehiaketa mistoetan EXFren baimena duten lizentzia federatiboko jokalaria.

#### **104. artikulua.**

Banakako Txapelketak suitzar sistemaren bidez jokatu dira. Lehiaketaren Oinarrietan ezarriko da txanda kopurua, parte hartzaile kopuruaren arabera.

#### **105. artikulua.**

Lehiaketa bakoitzean parte hartu ahal izateko, EXFk eman edo homologatutako indarrean dagoen lizentzia eduki beharko dute jokalariek, eta dagokien Lurralde Federazioaren bidez EXFn inskripzioa egin, deialdiaren zirkularrean ezartzen den epean. EXFk bereziki gonbidatutako jokalaria baldin bada edo Euskadin kirol ekintzaren batean parte hartzailea bada, berari dagokion Federazioan federatua egotea egiaztatu beharko du.

#### **106. artikulua.**

Parte hartzaileak diruz lagundutako jokalaria izan daitezke edo ez.

EXFk bere torneo ofizialetan diruz lagunduta izanen diren jokalarien zerrenda argitaratuko du.

EXFk argitaratuko du bere torneo ofizialetara Irekien bidez sarbidea izanen duten jokalarien zerrenda eta, hala bada, zein kuota ordaindu behar duten.

#### **107. artikulua.**

1. Fidantzak eta inskripzio kuotak ezar daitezke jokalaria parte hartzaileentzat. Kirol falta larriagatik kanporatuak izan ez diren eta antolaketa arauak bete dituzten jokalariei fidantzak itzuliko zaizkie, lehiaketa behin amaituta.

2. Dagokion kuota ordaindu ondoren edo dagokion Lurralde Federazioaren aldetik kontu baten gain geratzea onartu ondoren, Irekirako inskripzioa irmo joko da. Inskripzio kuoten salbuespena Txapelketa bakoitzean zehazki adieraziko dira.

#### **108. artikulua.**

Dagokien antolatzaileekin adostuta, era irekian lehiaketa bakoitzean parte hartzaileen gehieneko kopurua finka dezake EXFk. Txapelketen deialdiaren zirkularretan zehaztu beharko da muga hori. Muga hori ezarri bada, inskripzioak orden honetan onartuko dira: FIDE eloaren ordenaren arabera, gero FEDA eta Euskal eloaren ordenaren arabera eta azkenik inskripzio dataren arabera (lehenengo izen emandakoei lehentasuna emanik).

#### **109. artikulua.**

Sistema suitzarraren bidez egindako torneoetan azkeneko sailkapenetako puntuak berdinketak FIDEn araudian deskribatutako hurrengo ezberdinketa sistemak aplikatuta hautsiko dira (jarraian laburbiltzen direnak):

- 1.- Brasildarra. Aurkariak lortutako azkeneko puntuazioen batuketa, baxuena kenduta.



**2.-** Ertaina. Aurkariak lortutako azkeneko puntuazioen batuketa, altuena eta baxuena kenduta.

**3.-** Bucholz osoa. Aurkariak lortutako azkeneko puntuazioen batuketa.

**4.-** Pilatzailea. Txandaz txanda pilatutako puntuen batuketa. Berdinketa mantenduko balitz, txandak kentzen joanen litzateke, lehenengotik hasita eta gero ondorengoak azkenera arte.

Beste sistemen bidez egiten diren torneoetan, dagozkien Oinarrien arabera hautsiko dira berdinketak.

#### **110. artikulua.**

Behin ezberdinketa sistema guztiak aplikatuta, berdinketa mantentzen bada, sailkapena erabakitzeko jokalaria berdinduen arteko zozketa egingen da.

#### **111. artikulua.**

Lehenengo postuan sailkatuta geratzen den jokalaria Euskadiko txapeldunaren titulua lortuko du, dagokion kategorian. Era berean, bigarren postuan sailkatuta geratzen den jokalaria Euskadiko txapeldunordearen titulua lortuko du, dagokion kategorian.

18 urtez azpiko Banakako Txapelketetan, lehenengo sailkatutako emakumezko jokalaria Euskadiko emakumezko txapeldunaren titulua lortuko du, dagokion kategorian. Era berean, bigarren sailkatutako emakumezko jokalaria Euskadiko emakumezko txapeldunordearen titulua lortuko du, dagokion kategorian.

### **Adin Orotako Euskadiko Banakako Txapelketa.**

#### **112. artikulua.**

Sailkatutako jokalariek eta Irekietakoek Txapelketaren deialdiaren dataren ondorengo 10 egunetan euren parte hartzea baieztatu beharko dute.

Hutsuneak betetzeko epea ezarriko du EXFk, Txapelketa hasi baino 10 egun lehenagora arte.

#### **113. artikulua.**

Adin Orotako Txapelketaren Oinarri Teknikoetan adierazitako atalen batean barneratutako jokalariek parte hartzerik izanen dute, sailkatu modura edo EXFko Zuzendaritza Batzordeak izendatutako modura.

EXFk bereziki gonbidatutako jokalaria federaturen batek parte hartzerik izanen du.

Oinarrietan balizko hutsuneak betetzea eta plazen muga zehaztuko dira.

#### **114. artikulua.**

Egonaldi eta mantenu gastuak EXFren gain dituzten plazak finkatuko ditu EXFk.

#### **115. artikulua.**

Sailkapenaren araberrako gutxieneko sarien zerrenda ezartzerik izanen du EXFk. Sailkapenaren orden zorrotzari jarraituta ezarriko dira sariak, puntu berdindutakoen artean banatu gabe. Sarien zerrenda Txapelketen deialdiarekin batera argitaratuko da.

### **Emakumezkoen Euskadiko Banakako Txapelketa.**

**116. artikulua.**

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketak izaera irekia izanen du. Indarrean dagoen EXFren lizentzia duten jokalariek parte hartzerik daukate.

**117. artikulua.**

Gutxienez Lurralde Federazio bakoitzeko ordezkari batek parte hartzeko eskubidea izanen du. Baita ere Emakumezkoen Txapelketako Oinarri Teknikoetan izendatutako plazak betetzen dituzten jokalariek.

EXFk bereziki gonbidatutako jokalaria federaturen batek ere parte hartzerik izanen du.

**118. artikulua.**

Egonaldi eta mantenu gastuak EXFren gain dituzten plazak finkatuko ditu EXFk.

**119. artikulua.**

Txapelketaren iraupena, gutxienez, bost tandatakoa izanen da.

**120. artikulua.**

Txapeldunak FEDA Txapelketan parte hartzeko eskubidea irabaziko du.

**Beteranoen Euskadiko Banakako Txapelketa.****121. artikulua.**

EXFn federatutako jokalarientzat izaera irekia izan dezake Txapelketak. 55 urte edo gehiago Txapelketa egiten den urtean betetzen duen Lurralde Federazio bakoitzeko ordezkari batek, gutxienez, parte hartzeko eskubidea izanen du. Baita ere gonbidatu berezi federaturen batek.

**122. artikulua.**

Antolakuntza behartuta dago aurreko urteko Euskadiko txapelduna gonbidatzeko, egonaldiko gastuez salbuetsia. Beteranoen Txapelketako Oinarri Teknikoetan plazen zerrenda eta beste baldintzak adieraziko dira.

**123. artikulua.**

Txapelketako lehenengo lekuan sailkatzen dena Euskadiko Txapelduna izanen da.

FEDAren Beteranoen Txapelketan Euskadi ordezkatzeko eskubidea izanen du indarrean dagoen lizentzia duen lehenengo sailkatuak (FIDEn atzerriko banderarik ez badu).

**Xake Azkarreko Euskadiko Banakako Txapelketa.****124. artikulua.**

Lurralde Federazio bakoitzeko txapeldunek eta ordezkariak parte hartzeko eskubidea izanen dute. Baita ere gonbidatuek (titulatuak eta elokoek). Azkarretako Txapelketako Lehiaketaren Oinarrietan adieraziko dira plazak.

**125. artikulua.**



Torneoak izaera irekia izan dezake, indarrean dagoen EXFko lizentzia duten jokalaria guztiak izena emateko gai izanik. Oinarrietan inskripzio kuota eta plazen muga zehaztuko dira.

#### **126. artikulua.**

5 minutuko joko erritmorako indarrean dauden FIDEn arauak aplikatuko dira. Beste joko abiadura batzuk ere ezar daitezke.

#### **127. artikulua.**

Txapelketako lehenengo lekuan sailkatzen dena Euskadiko Txapelduna izanen da.

FEDAren Xake Bizkorreko Torneoan Euskadi ordezkatzeko eskubidea izanen du indarrean dagoen lizentzia duen lehenengo sailkatuak (FIDEn atzerriko banderarik ez badu).

### **Nazioarteko Sustapenerako Xake Torneoak.**

#### **128. artikulua.**

Nazioarteko Sustapeneko Torneoetarako hurrengo kategoriak ezartzen dira:

A) Nazioarteko Sustapeneko Torneo Itxia (NMren eta MHren Nazioarteko Tituluetako normak lortzeko aukera izateko baliagarria; adibidez, Elgoibarko Maisuen Nazioarteko Torneoa).

B) Nazioarteko Sustapeneko Torneoa (FIDE eloaren aukerarako edo hobetzeko baliagarria; adibidez, Schwenigeko Nazioarteko Torneoa, Nazioarteko Irekia edo antzekoak).

#### **129. artikulua.**

EXF saiatuko da A mailako nazioarteko kirol ekintza motaren bat antolatzen eta B mailako Torneoren baten antolaketa indarberritzerik izanen du.

Euskadin Xakeko Nazioarteko Ireki Handia egokiro antolatzerik izanen du EXFk.

Bi kasuetan (A eta B) Euskadin jokalaria federatu jakin batzuek parte hartu behar dute beti.

#### **130. artikulua.**

Euskadin federatutako jokalaria jakin batzuek parte hartzen duten Nazioarteko Torneo Irekien antolatzaileak bultzatzen jarraitzerik izanen du EXFk.

#### **131. artikulua.**

1. Maisuen Torneoko Oinarriak argitaratuko ditu EXFk. Baita ere antola ditzakeen B mailako beste Torneotakoak.

2. A eta B motatako kirol ekintzek dituzten kostuez eta bultzadaz informatuko du EXFk.

3. A eta B motatako kirol ekintzetan emaitzen segimenduaz informatuko du EXFk.

### **Adinen araberako Euskadiko Banakako Txapelketak.**

#### **132. artikulua.**

Adinen araberako Euskadiko Txapelketetarako hurrengo kategoriak ezartzen dira:



- 12 urtez azpikoa. Eskola adinekoa (Alebinak).
- 14 urtez azpikoa. Eskola adinekoa (Infantilak).
- 16 urtez azpikoa. (Kadeteak).
- 18 urtez azpikoa (Gazte mailakoak).

### **133. artikulua.**

Adinen arabera Txapelketetan bi sexueta jokalariek daukate parte hartzerik, lehiaketa egiten den urteko urtarrilaren 1 baino lehenago aipatzen den adina bete ez badute.

### **134. artikulua.**

Arauzko eran jokaldiak idaztea beharrezkoa izanen da jokalaria guztientzat, lehiaketaren motak/erritmoak eskatzen ez duenean izan ezik.

### **Kadete mailako Euskadiko Banakako Txapelketa (16 urtez azpikoak).**

### **135. artikulua.**

Lurralde Federazio bakoitzean adinaren betebeharra betetzen duten ordezkari sailkatuek parte hartzeko eskubidea izanen dute. Kadete mailako Txapelketetako Lehiaketaren Oinarrietan aipatuko dira plazak.

### **136. artikulua.**

Kategoria berean aurreko urteko Euskadiko txapeldunak ere parte hartzeko eskubidea izanen du lehiaketa bakoitzean, adinaren betebeharra betetzen badu.

Bi sexueta gazte federaturen batek ere parte hartzerik izanen du, EXFk bereziki gonbidatuta.

### **137. artikulua.**

Txapelketek izaera irekia izan dezakete. Kasu horretan, indarrean dagoen lizentzia federatiboa duten bi sexueta jokalariek leukakete parte hartzerik, lehiaketa egiten den urteko urtarrilaren 1 baino lehenago aipatzen den adina bete ez balute eta baita ere dagokien Lurralde Txapelketan parte hartu balute edo ez jokatu izana zuzituz dute gazte balio berriak balira.

Oinarrietan inskripzio kuota eta plazen muga zehaztuko dira.

### **138. artikulua.**

Lurralde Txapelketetan parte hartu ez duten jokalarientzako plazak gordetzen ditu EXFk. Horietan sartzeko hurrengo baldintzetako bat beharrezkoa izanen da:

- EXFko zuzendaritza teknikoak egindako sustatzeko moduko jokalarien zerrendetan sartuta egotea.
- Dagokion Lurralde Federazioak modu arrazoituan proposatzea. Horretarako, jokalaria kirol merituen historiala aurkeztu beharko du, EXFko zuzendaritza teknikoak ebaluatzeko.

### **139. artikulua.**

1. Txapelketako lehenengo lekuan sailkatzen dena Euskadiko Txapelduna izanen da.

FEDAren Kadeteen Txapelketan Euskadi ordezkatzeko eskubidea izanen du indarrean dagoen EXFko lizentzia duen lehenengo sailkatuak (FIDEn atzerriko banderarik ez badu).



Eskubide bera dagokio emakumezko lehenengo sailkatuari.

2. 16 urtez azpiko azkeneko sailkapena kontutan hartuko da baita ere 16 urtez azpiko Euskal Selektzioan parte hartzeko helburuz gazte batzuren balizko hautaketarako.

### **Gazte mailako Euskadiko Banakako Txapelketak (18 urtez azpikoak).**

#### **140. artikulua.**

Lurralde Federazio bakoitzean adinaren betebeharra betetzen duten ordezkari sailkatuek parte hartzeko eskubidea izanen dute. Gazte mailako Txapelketetako Lehiaketaren Oinarrietan aipatuko dira plazak.

#### **141. artikulua.**

Kategoria berean aurreko urteko Euskadiko txapeldunak ere parte hartzeko eskubidea izanen du lehiaketa bakoitzean, adinaren betebeharra betetzen badu.

Bi sexuetakoko gazte federaturen batek ere parte hartzerik izanen du, EXFk bereziki gonbidatuta.

#### **142. artikulua.**

Txapelketek izaera irekia izan dezakete. Kasu horretan, indarrean dagoen lizentzia federatiboa duten bi sexuetakoko jokalariek leukakete parte hartzerik, lehiaketa egiten den urteko urtarrilaren 1 baino lehenago aipatzen den adina bete ez balute eta baita ere dagokien Lurralde Txapelketan parte hartu balute edo ez jokatu izana zurrizterik duten gazte balio berriak balira.

Oinarrietan inskripzio kuota eta plazen muga zehaztuko dira.

#### **143. artikulua.**

Lurralde Txapelketetan parte hartu ez duten jokalarientzako plazak gordetzen ditu EXFk. Horietan sartzeko hurrengo baldintzetako bat beharrezkoa izanen da:

- EXFko zuzendaritza teknikoak egindako sustatzeko moduko jokalarien zerrendetan sartuta egotea.
- Dagokion Lurralde Federazioak modu arrazoituan proposatzea. Horretarako, jokalariaen kirol merituen historiala aurkeztu beharko du, EXFko zuzendaritza teknikoak ebaluatzeko.

#### **144. artikulua.**

Txapelketako lehenengo lekuan sailkatzen dena Euskadiko Txapelduna izanen da.

FEDAren Gazte mailako Txapelketan Euskadi ordezkatzeko eskubidea izanen du indarrean dagoen EXFko lizentzia duen lehenengo sailkatuak (FIDEn atzerriko banderarik ez badu).

Eskubide bera dagokio emakumezko lehenengo sailkatuari.

#### **145. artikulua.**

Gazte mailako Euskadiko txapeldunak hurrengo urteko Adin Orotako Euskadiko Txapelketan parte hartzeko aukera ere izanen du.

### **Eskola adineko Euskadiko Txapelketak (12 eta 14 urtez azpikoak).**

**146. artikulua.**

Gaur egun, Eskola adineko Euskadiko Txapelketa hauek Euskadiko Erkidego Autonomoko hiru foru lurraldeetan eskolako lizentzia duten alebinentzat (12 urtez azpikoentzat) eta infantilentzat (14 urtez azpikoentzat) gehi Nafarroako gonbidatuentzat dira eta banakakoak.

**147. artikulua.**

Euskadin eskola adineko jarduera hauen antolaketak Eusko Jaurlaritzaren Eskola Kirol Arloaren gida lerroei jarraitzen die. Euskadiko Finalerako sailkatzen dira lurralde bakoitzeko bi sexutako eskola adineko jokalaria, dagokion Foru Aldundiaren araudiarekin.

Lurralde Federazioekin batera, EXFk laguntzen du eta lehiaketen kontrol teknikoa darama.

**148. artikulua.**

Eusko Jaurlaritzako Eskola Kirol Arloarekin elkarlanean, EXFk Eskola adineko Euskadiko Txapelketen deialdia eta Oinarriak argitaratuko ditu eta talde tekniko-antolaketakoa koordinatuko du.

**149. artikulua.**

Parte hartzeko adina zabaltzen, eskola adinekoen xakeko jardueren araudia eta egutegia moldatzen, eta abar saiatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kirol Arloaren aurrean EXFk kudeaketari jarraituko dio.

**150. artikulua.**

Beren adineko FEDAren Txapelketan parte hartzeko eskubidea izanen dute 14 eta 12 urtez azpiko Euskadiko lehenengo sailkatuak eta lehenengo emakumezko sailkatuak.

14 urtez azpiko azkeneko sailkapena kontutan hartuko da baita ere 14 urtez azpiko Euskal Seleksioan parte hartzeko helburuz gazte batzuren balizko hautaketarako.

**Euskadin Banakako beste Lehiaketez.****151. artikulua.**

1. Euskadin Banakako hurrengo jardueren eta lehiaketen antolaketa suspertzerik izanen du EXFk, beste batzuren artean:

- Xakeko Problemisten Torneoa.
- Itsuka Xakeko Lehiaketa.

2. Hasiera baino 30 egun lehenago, gutxienez, EXFk aurreko proben deialdia egin eta dagozkien Oinarriak argitaratuko ditu.

**V. TITULUA. EUSKAL SELEKZIOAZ.****10. Kapitulua. Seleksioen arteko Lehiaketez.****152. artikulua.**

1. Taldekako nazioarteko, autonomien arteko edo lurraldeen arteko proba batean Euskadi ordezkatzan duten parte hartzaileen multzoa Euskal Seleksioa dela ulertuko da.

2. Kapitainak edo hautatzaileak, jokalariek eta, baldin bada, Federazioko ordezkariak edo monitore-



entrenatzaileak osatzen dute.

### **153. artikulua.**

Lehiaketarako Euskal Selektzioaren deialdietara joateko betebeharra dauka jokalaria federatu orok.

### **154. artikulua.**

1. Adin Orotako Euskal Selektzioaz gain, hainbat probatan Euskadi ordezkatzeko beharrezkoak diren Euskal Selektzioak osa ditzake EXFko Zuzendaritza Batzordeak.

2. Euskal ordezkartzaren balizko parte hartzea EXFk kudeatzeko proben artean hurrengoak daude:

- Selektzioen arteko Nazioarteko Torneoak.
- Erkidegoetako Selektzioen Txapelketak.
- Lurraldeen arteko Selektzioen Torneoak.

### **Selektzioen arteko Nazioarteko Torneoak.**

### **155. artikulua.**

1. EXFko Zuzendaritza Batzordeak Hautatzailea izendatzerik izanen du. EXFko zuzendari teknikoak proposatuko dio lehendakariari. Hautatzailea izanen da ordezkartzako taldeen arteko lehiaketetan Euskadi ordezkatzeko taldea izendatuko duena.

2. Hautatzailea izanen da prestaketaren eta jokalarien zerrendaren arduraduna, beti ere irizpide teknikoen arabera. Horiei buruz EXFko Zuzendaritza Batzordea informatuko du.

### **156. artikulua.**

Hautatzailea izendatzen ez bada, EXFko zuzendari teknikoak proposatuta, Zuzendaritza Batzordeak Euskal Selektzioa zehazteko irizpideak onartuko ditu eta bere osaera web ofizialean argitaratuko da.

### **157. artikulua.**

Hautatzailerik ez bada, EXFko zuzendari teknikoak proposatuta, Zuzendaritza Batzordeak Kapitaina izendatuko du, jokalaria ere izan daitekeena. Gutxienez, hurrengo funtzioak izanen ditu:

- a) Lehiaketen bitartean taldeko ordezkari moduan jardunen du.
- b) Jardunaldi edo neurketa bakoitzean jokalarien zerrenda erabakiko du.
- c) Xakeko partiden prestaketa teknikoa eta analisisa sustatuko ditu.
- d) Txapelketa bakoitzaren ondoren txosten tekniko xehetua landuko du, joandako lehiaketa bukatu ondoren gehienez 15 egunetako epean EXFko zuzendari teknikoari aurkeztuko diona.

### **158. artikulua.**

1. EXFko Zuzendaritza Batzordeak Federazioko ordezkaria izendatzerik izanen du, lehiaketa ofizialetan egonaldia irauten duen bitartean Selektzioa lagunduko duena. Bere funtzioak hurrengoak izanen dira:

- a) Bidaia eta egonaldiaren baldintzak gainbegiratzea, beharrezkoa bada Txapelketako lekura aurretik joanda.



- b) Bidaietan eta lehiaketako egonaldiko egunetan EXFren ordezkariak eramatea, lehendakari jauna bertan ez bada.
  - c) Bidaia, ostatu, mantenu eta, oro har, Selektzioa uki dezakeen orotan (kapitaina edo hautatzailearen eskumena ez bada) edozein auzi konpontzea.
  - d) Euskal Selektzioako kide guztiek jokabide zuzena eraman eta arauak betetzearen erantzulea izanen da. Batez ere adin txikikoei arreta berezia eskainiko die.
  - e) Lehiaketaren garapen orokorraren inguruko txostena landuko du, bera izendatua izan den Lehiaketa bakoitzaren ondoren gehienez 15 egunetako epean EXFko Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko diona.
2. Federazioko ordezkaria izendatzen ez bada, bere funtzioak kapitainak edo hautatzaileak hartuko ditu.

### **Autonomietako Selektzioen arteko Txapelketak.**

#### **159. artikulua.**

1. Selektzio Autonomikoen lehiaketetan adin orotako jokalariek lehiatzerik izanen dute, gazte mailakoak barne, hautatuak baldin badira eta beste selektzio autonomiko batean azkeneko 3 urteetan jokatu ez duten federatuak badira badute.
2. Kadete eta Infantil mailako selektzioen lehiaketetan, EXFko Zuzendaritza Batzordeak Federazioko ordezkaria eta monitorea edo entrenatzailea izendatzerik izanen du. Monitore edo entrenatzailearen funtzioa funtsean teknikoa izanen da: Aholkularitza, prestaketa, jokalarien zerrenda egitea eta kontrol teknikoa. Txostena landuko du, lehiaketa bukatu ondoren gehienez 15 egunetako epean EXFko Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko diona.

### **Lurraldeko Selektzioen arteko Torneoak.**

#### **160. artikulua.**

1. Euskadi barnean eta kanpoan Lurraldeen arteko Selektzioen Torneoetan, dagokion Torneoaren Oinarrietan adierazitako betebeharrak betetzen dituzten Lurralde Federazioko ordezkariak parte har dezakete. Oinarriek, gutxienez, hurrengoak zehaztu beharko dute:
  - a. Proban parte hartzea ahalbidetzen duten kirol betebeharrak.
  - b. Antolaketa. Izena emateko epea eta baldintzak.
  - c. Parte hartzea eta gutxieneko sariak, baldin badira.
  - d. Joko sistema, txanden gutxieneko kopurua edo kopuru finkoa, lekua eta joko egunak.
2. Antolakuntzaren aldetik, EXFk informazioa izanen du aldez aurretik eta kirol ekintza bukatu ondoren. Torneo mota hauen kontrol teknikoa EXFri dagokio, antolakuntza eta dagokion Federazioarekin batera.

## **VI. TITULUA. DOPINGAREN KONTROLAZ.**

#### **161. artikulua.**

1. Kirolean osasunaren babesak eta dopingaren aurkako borroka nazioarteko standard bati jarraitzen diote. Kirolean substantzia eta metodo debekatuen zerrenda bada, 2009ko urtarrilaren 1eko Estatuko Aldizkari Ofizialaren 1. alean argitaratua (2008ko abenduaren 18ko Ebazpena, 2007koaren kontrola



gaurkotzen duena, lehiaketaren barruan eta kanpoan).

**2.** EXFk bere gaineko organismoaren jarraibideei jarraituko die, dopingaren kontrolaren inguruan dagozkion probetan.

**3.** Jokalari federatu oro behartuta dago legez ezarritako doping kontrolak egiteko. Lehiaketa bitartean, doping kontrolaren proba bati uko egiten diona berehala lehiaketatik kanporatua izanen da, legezkiokkeen beste zigorraren kaltetan izan gabe.

## **162. artikulua.**

Horretarako izendatutako organoaren bidez, dagokien lehiaketetan EXFk dopingaren kontrola egiterik izanen du. FEDAren doping kontrolerako Arautegia aplikatzerik izanen da.

### **BEHIN-BEHINEKO XEDAPENAK.**

#### **LEHENENGOA.**

EXFko Zuzendaritza Batzordeak Txapelketetarako Lehiaketen Oinarrien eredia landuko du, Arautegi honen osagarri gisa.

Aipatutako Oinarriak EXFren web ofizialean argitaratuak izanen dira, lehiaketa ofizial bakoitzaren hasiera baino hilabete bat lehenago, gutxienez.

#### **BIGARRENA.**

2010ean, lizentziak tramitatu eta, bere kasuan, Euskadiko Txapelketetan parte hartzeko aukera izateko epeak urtarrilaren 31ra arte finkatzen dira.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**

Arautegi honetan ezarritakoari aurka egiten dioten lerrun bereko edo gutxiagoko xedapen oro indargabetuta geratzen dira.

### **AZKENEKO XEDAPENA.**

Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak onartu ondorengo lehenengo egunean indarrean sartuko da Arautegi hau.